

## LURZORUAREN DIAGNOSTIKOA IKASTETXEAN

### BEGIRA EZAZU NON ZAPALTZEN DUZUN

#### Helburua:

- Jolastokiko zoruaren azterketa eta haren banaketa ezpaziala egitea. Gune ezberdinetako zoruaren ezaugarriek haren erabilera baldintzatu edo mugatzen dutela hausnartzea. Dagoen lurzoru kantitateaz jabetzea.

Norentzat: Bigarren hezkuntza eta batxilerra

Materialak: neurketarako tresnak , planoak eta ortofotoak.

Tokia: jolastokia eta ikasgela

Iraupena: ordubeteko saioa

#### GARAPENA:

##### 1. URRATSA: Ikastetxeko zoruari buruzko datuak bildu.

1.1- Gure ikastetxeko zoruaren erabilerari buruzko informazioa aztertu,

-Ikastetxea egin aurretik zegoena: zer lurzoru mota zegoen, zertarako; Horretarako **ortofotoak** ikusi eta ahal izanez gero argazki zaharrak bildu .

-Ikastetxea egin ondoren aztertu lurzoruaren erabilerak (gaur egunekoak): horretarako gaur eguneko ortofotoak ikusi eta komentatu.

1.2- Jolastokia gune ezberdinetan banatzen da. Ikasleak ere guneen arabera taldeka banatuko dira.

Ondoren jolastokira irten eta bertan aztertuko dugu zein diren ikastetxeko zoruaren banaketa eta erabilera.

Horretarako talde bakoitzak dagokion gunea neurtu, honek duen zoru mota (porlana, hondarra, baldosak, belarra..) apuntatu eta zertarako

erabiltzen den adieraziko du. Jasotako datuak bere planoan(denek plano berdina izango dute) apuntatuko dituzte.

1.3-Ondoren ikasgelan, aurkitutakoaz hitz egiten dute: egoera, kontserbazioa, erabilpena (zertarako, zenbat jendek erabiltzen duen...) eta ondorioak laburtuta jasotzen dituzte. Baita hobetzeko **proposamenak** ere.

- Hartutako neurri guztiekin ikastetxeko jolastokiaren plana osatuko da.

- Aztertu zoru mota bakoitza egokia al den duen erabilerarako?

- Ikastetxeko zoruaren zenbateko portzentaia dago berezko egoeran, lurzoru bezala(porlanik edo asfaltorik gabe)?

- Ikastetxeko zoru guztitik zenbatekoa da atsedena hartzeko? Jolasteko? Paseatzeko? Beste erabileraren baterako?

- Ikastetxeko lurzoruan ba al da zaborrik? Non, zergatik?

## 2. URRATSA: Emaitzak komunikatu

- Ikastetxeko lurzoruari buruz jaso diren datuak ebaluatu, eta Hezkuntza komunitateari komunikatu, ikasgeletan, horma-irudien bidez